EUSKARALDIA: MINGAINAK DANTZAN

KALAPUTXI

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
210. zenb. 2020ko azaroa

HAIZIA, ITSASUAN ETA LIHORRIAN (II)

16 ABENDUROCK: KULTURA LEIHOETATIK

JENTILEN GAINETIK, KOBETA NAGUSI ARNON

MUTRIKUARRAK ERBESTEAN

Jose Juan Uranga Iparragirre

XAKEA ETA ZUHAITZ GENEALOGIKOAK ZALETASUN

EROSKI city

Gure bezeroengandik beti hurre

okindegia · fruitategia · harategia · urdaitegia · eta beste
asteazken eta ostiraletan erosketak etxera eramateko aukera
San Agustin 10 · Mutriku · Tel. 943 60 36 11

BATZOKIA
erretiroa dela eta, taberna alokatzen da
interesatuta bazaude, eta
informazio gehiago nahi baduzu, deitu: 670257016

Telefonoak

Osasuna

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00

Botikak

Lasuen-Elezgarai 943 19 50 26
..... 626 61 13 92
Lon Apraiz 943 60 32 50
..... 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar) 943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar) 943 74 11 77
Yudego (Elgoibar) 943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar) .. 943 74 12 77
Celia Barandela (Eibar) 943 20 69 84

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa 943 60 70 48
..... 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte bulegoa 943 60 42 47
Anai Arte taberna 943 60 34 10
Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Partzuergoa 902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 35 45
Udal Euskaltegia 943 60 30 94
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
ANTON taxia 666 22 19 99
XABI taxia 656 28 90 26
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 900 12 14 00
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 902 54 32 10
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87
Santa Catalina eleiza 943 60 32 00

Iritzixa

Ibon Aginaga Imaz

FRANCOTARREN EGUNAK OSPATZEN, GOXO-GOXO

Ezin nuen sinetsi. Urriko goiz hotza zen (zortziak pasatxo) eta lanera nindoan egunero bezala. Nire ezusterako, ordea, herria lo aurkitu nuen. Une batez, etsipena, atsekabea eta amorru sentimendua gurutzatu zitzaizkidan erraietan barrena. “Mutrikun horrela bagabiltza, akabo!” pentsatu nuen. Niretzat ohiko eguna zena, beste askorentzat ez itxuraz.

Urtean badira bi egun inoiz baino gogo gehiagorekin joaten naizena lanera. Beharbada, herrigintzan lan egiteak ematen dit egun horietan lanera joateko aukera. Zorteduna ni.

Egia esan, ondokoaren egoera ezagutzen ez dugunean erraza da hitz egitea. Egun hartan lanera joan nahi eta ezin zutenak ere izango ziren, nagusiak lantokia ixtea erabaki zuelako; lanean itota bizi denarentzat jai eguna arnasa da, eta beharbada, uler daiteke berari berdin izatea zeren jaia den; premia gorriz bizimodua aurrera ateratzeko irekiko zuenik ere izango zen agian, hori ez dakit. Bakoitza mundu bat da. Halere, arazoa goragotik konpondu behar dela iruditzen zait, baina han ez dut ikusten geure egutegia egiteko ausardia nahikorik. Agintariak zapaltzaileen oinetara makurtzean herriak erantzun beharko du, ezta?

Egunotan EITBko zenbait langile lasai asko (goikoen agindua fin betez, ziur asko) “zubia” eta “jai eguna” esaten entzuteak lotsa eman dit; mindu eta sutu egin nau. Zuek ez?

Nik zorionak eta eskerrak eman nahi dizkiet egun horretan beste edozein lan egunetan bezalaxe lan egin zutenei eta euren lantokiak ausardiaz ireki zituztenei.

Bai, urriaren 12az ari naiz, baina abenduaren 6ko astegun bat ere izan zitekeen.

Jai egun proposamen bat ere badakart: abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna; gure hizkuntza baita beste herriengandik berezi egiten gaituena; herri honi nortasuna ematen diona.

Bukatzeko, galde egiozue zeuen buruei: nola sentituko lirateke, adibidez, Miguel Angel Blancoren etxekoak, Gudari eguna (derrigor) jai hartu behar dutela esango baliete? eta zer sentituko du, adibidez, Ane Muguruzak urriaren 12an eta abenduaren 6an (bai ala bai) jai egin behar duela esaten diotenean?

Argi dago egungo “gure egutegiak” zer dioen. Hala ere, galdera hau da:

Edozer “ospatzeko” prest gaude?

www.lurraldebus.eus 900 300 340 (08:00-20:00)

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	Debaraino (20:40)
Donostia	(*) 7:55	11:30	14:30	19:30	---	(*) Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	(*) 14:30	18:00	20:30	(*) Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	22:55
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	19:10	20:10
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	19:40	20:40
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15	---	---
Mutriku	9:25	11.25	13:25	16:25	18:25	---	---

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

neguko ordutegia irailaren 1etik

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	(ig) 20:30	(lr.) 21:00	(ig) igande eta jai egunetan (lr.) larunbatetan
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	22:00	
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	(lr.) 7:15	8:15	orduro	20:15	21:25	(lr.) 22:15
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:30
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	---	7:45	orduro	19:45	(lr.) 20:45	(lr.) 21:45
Eibar	---	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00
Mendaro	---	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35
Mutriku	---	8:55	orduro	20:55	(lr.) 21:55	(lr.) 22:55

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	(lr.) 22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	(lr.) 9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	(lr.) 8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:
www.kalaputxi.eus

1970. URTEAN JAIOTAKOEN BAZKARIA 50 URTE BETE DUTENENTZAT

Kaixo lagun guztioi.

Aurtengo urtea berezia izan da 50 urte bete ditugulako guztiok.

Zenbaki potolo eta borobila, oroitzapenez, gogoetaz eta ilusioz bete ditugunak.

Aurten "bazkari berezia" antolatu behar genuen, 50 urteak elkarrekin ospatzeko, baina Covid19.a dela eta **EZ DA BAZKARIRIK ANTOLATUKO!**

Asko sentitzen degu aurten ezin elkartu izatea, baina daukagun egoera ikusirik erabaki zentzudunena eta egokiena dela iruditzen zaigu antolatzaileoi.

Hala eta guztiz ere, gogoratu ezazue 2021.urteko Santo Tomas egunean (51 urtekin) ospatuko ditugula gure 50 urteak, merezi dugun moduan.

ZORIONAK 50 URTE BETE DITUGUN GUZTIOI!

70ekoak

HEMERETZI URTE ZUEKIN

2001 urrun hartan Kalaputxiren hazia erein genuenean nork pentsatuko zuen ia bi hamarkada beranduago hemen jarraituko genuela, eta hemen gaude.

Lehenengo momentutik izan genuen helburua berrituz joan gara urtez urte, eta urte berri baterako ere halaxe dugu berrituta, hogeigarren urtearen bila: mutrikuar guztiei euskarazko irakurgaia eskura jartzea.

Hemeretzi urtetan hilez hile hutsik egin gabe hor egon da Kalaputxi, irakurle mutrikuarrei mutrikuarren gaiak eta pertsona mutrikuarrak aurkeztuz. Herritik herrirako ulertzen dugulako gure egitekoa.

Hemeretzi urte ondoren atzera begiratu eta pozik ikusten dugu gure orrietatik pasatu diren zientoka mutrikuarren oroitzapena: elkarrizketatuak, zorionduak, kolaboratzaileak, laguntzaileak, lagunak, iragartzaileak, gutun-idazleak... Harrotasunez esan dezakegu urte hauetan denetan herritarrak hurbil sentitu ditugula.

Eta atzera begiratu eta poztu egiten bagara ere, aurrera begira jarraitu nahi dugu, hurrengo hileko horizonte laburrarekin baina urrutira ailegatzeko intentzioarekin. Tipi-tapa tipi-tapa, aurrera egingo dugu, eta betiko moduan herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu Kalaputxi erabiltzera, nork bere moduan, goitik behera irakurriz, norbere interesekoa den elkarrizketa irakurriz, iragarkia jarriz, argazki zaharra erakutsiz...

Azken batean, gure egitekoa horrela ulertzen dugu: herritik herrirako. Xirik ere halaxe ulertuko zuen.

Kalaputxiko lan-taldea

Argitaratzailea
Karenka Komunikazio Elkartea
Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku
Tel. 635 748 393
e-posta kalaputxi2001@gmail.com
Webgunea: www.kalaputxi.eus
Bloga www.kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea Mutrikuko Udala
Kolaboratzaileak
Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga, Ibon Aginaga
Tirada 2.200 ale
Lege Gordailua SS-787/01
ISSN 1579-4792
Inprimategia EUSKALINPRI
Banaketa Kalaputxi

*Kalaputxi*k irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Datozen ordenean eta espazioak eskaintzen duen aukeraren barruan, moztu edo hurrengo hilerako laga dezakegu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira posta arruntez edo posta elektronikoz.

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Mutrikuko Udalaren dirulaguntza
jasotzen du:
Mutrikuko Udala

EUSKARALDIA

15 EGUN EUSKARAZ

Mutrikun

azaroaren 20tik
abenduaren 4ra

MINGAINA

Hasi da *Euskaraldia*ren bigarren aldia edo edizioa. Mutrikuko kaleetan ikusten dira herritarrak soinean *Ahobizi* eta *Belarriprest* ikurrekin; eta baita, establezimenduak ere *Arigunea* ikurra jarrita. Hasi da 15 egun (azaroaren 20tik abenduaren 4ra) iraungo dituen ekimena edo ariketa soziala, zenbaitentzat erronka (eta ez makala, gainera). Hizkuntz ohiturak astintzea da ekimen honen helburua; hau da, leloak esaten duen bezala, euskaraz inoiz baino GEHIAGO, GEHIAGOREKIN ETA GEHIAGOTAN egitea.
Oraingo honetan lau herritar ekarri ditugu *Euskaraldia*ren inguruan hitz egitera.

Maritxu Arrizabalaga Berabide
(ile-apaintzailea)

Zergatik hartuko duzu parte Euskaraldian?
Egunerokoan beti hitz egiten dut euskaraz, gazteleraz ez dakigu eta... (barreak). Baten batek ez badaki, gehiago kostatzen zait euskaraz jarraitzea, baina... gu nahi gabe ere gazteleratik euskarara pasatzen gara. ***Ahobizi*** izango naiz *Euskaraldia*n.

Zer iruditzen zaizu Euskaraldia?
Oso garrantzitsua iruditzen zait. Badakizu zer pasatzen zaidan niri askotan? Euskara batu hau ez dudala ulertzen behar den bezala, baina hala ere ondo. Amorrua ematen dit gazteak gazteleraz entzuten ditudanean lagun kuadrilletan. Guk gaztetan euskaraz egiten genuen; pentsa, maistrak pizarra buruan apurtu zidan euskaraz egiteagatik.

Jon Azpiazu Pazos
(ikaslea eta MRK-ko kidea)

Euskaraldian parte hartzea garrantzitsua dela uste duzu?
Mutrikuarra izanda, guretzat euskaraz egitea berezko kontua da. Txikitatik ikasi eta erabiltzen dugu etxean,

hitza
herriaren informazioa
herriaren hizkuntzan
herriaren zerbitzuan

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

K DANTZAN HASITA

ikastetxean, kalean... Lagun artean ere euskaraz bizi gara. MRKn ere guztia (bilerak, paper kontuak...) euskaraz egiten dugu. Herrian hizkuntzaren arloan zer hobetua badagoen arren, beste toki batzuen aldean ondo gaude. Nik aste barruak Bilbon igarotzen ditut, eta han konturatzen zara zer-nolako zortea daukagun mutrikuarrok, euskarari dagokionez. Unibertsitatean askok gaztelaniaz egiteko joera dute (batzuek baita euskaraz egiteko erraztasun falta ere), baina ni beti euskaraz egiten ahalegintzen naiz. Orain *Euskaraldia* izanda, *Ahobizi* ikurra eramango dut soinean eta horrekin inguruan gehiago eragingo dudala uste dut. Euskal Herri mailako ekimen bat izanda, gizarteak beste era batera hartzen du; ekimenarekin gehiagok egiten dute bat eta jendea gehiago saiatzen da (baita normalean askorik saiatzen ez direnak ere). Ni ere bestetan baino gehiago eta gehiagorekin euskaraz egiten saiatuko naiz.

Saioa Altzibar Sustaeta (dendaria eta sortzailea)

Zer dela eta erabaki duzu *Belarriprest* izatea?

Izan, ez dakit Euskaraldian *Belarriprest* ala *Ahobizi* izango naizen. Hori bai, *Belarriprest* ikurra eramango dut soinean. Kontua da, nik urte osoan *Ahobizi* bezala jokatzen dudala normalean, baina negozio baten jabea zarenean beti ez dela hain erraza benetan *Ahobizi* izatea, nahiz eta euskaldun-euskalduna izan. Nik gazteleraz egiten didanari ere euskaraz erantzuten diot askotan, ulertzen ez duela konturatzen ez banaiz behintzat. Batzuetan ez dakizu zenbateraino ulertzen duen edo nola hartuko duen zuk berari euskaraz eginda. Hortaz, nahiago dut *Belarriprest* ikurra jarri eta *Ahobizi* izaten saiatu, *Ahobizi* ikurra jarri eta horrek eskatzen duen konpromisoa ez betetzea baino. Batzuei arraroa egingo zaie nik *Belarriprest* ikurra eramatea, baina zentzuz jokatzea dela uste dut. Gainera, ikur honekin niri euskaraz egiteko gonbidapena egingo diet bezeroei eta inguruko guztiei; nik atsegin handiz, hala erantzungo diet, noski!

Aner Arrizabalaga Oiarzabal (harakina)

***Ahobizi* izatea erabaki duzu. Ez da erronka makala. Erraz beteko duzula uste duzu?**

Nik harategira datozenei beti euskaraz egiten diet, ulertzen badute behintzat. Lehen hitza, guztiei euskaraz; hortik aurrerakoa, aurrean daukazunaren arabera. Egia da, ezagutzen ez duzun bati errazago egiten diozula gazteleraz berak gazteleraz egiten badizu, ez dakizu-eta ulertuko dizun ala ez. Hala ere, egungo egoeran, hasiera batean behintzat, herritarrak etor daitezke bakarrik hona, orduan, badakit nork ulertuko didan euskaraz eginda eta nork ez. Hortaz, *Ahobizi* izango naiz. Gainera, ikur honekin inguruan eragingo dudala uste dut eta herritarrak euskaraz gehiago egitera animatu.

txirritxa .com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrialdea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

Uzuri RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

ITALIAKO TOSCANAN, ERASMUSEN

2020 urte ez-ohiko honetan egitasmo asko gelditu dira bertan behera, baina batzuek aurkitu dute beren planekin aurrera egiteko bidea. Eneko Palenzuela Badiola mutrikuarra, gora behera guztien gainetik, Erasmusa egitera joan da Italiara. Zuzenbide graduko 3. maila ari da gauzatzen Sienan.

Zerk eraman zintuen Erasmusa egiteko Siena hautatzera? Betidanik erakarri izan nau Italian bizitzeko aukerak. Zuzenbide gradua ikasteko Italian badaude unibertsitate onak, ospe ona dutenak. Gainera, Italiako toki politenetako bat Toscana dela entzun izan dut makina bat aldiz, beraz, Sienan Erasmusa egitea aukera polita izan zitekeela iruditu zitzaidan. Duela urte batzuk bertan ikasi zuen Haizeari unibertsitateari zein bertako ikasle bizitzari buruzko informazioa eskatu nion eta nahiko garbi ikusi nuen Siena Erasmusa egiteko toki eder eta aproposa zela.

Zer moduz moldatzen zara hizkuntzarekin? Beti entzun izan dut italiera erraza dela gaztelera dakigunontzat, baina lehenengo egunetan ez nuen asko ulertzen. Hilabete pasa ondoren, belarria ohitzen joan zait eta orain momentuan ulermen gaitasun askoz hobea daukat. Hurrengo pausua hitz egiten hastea izango da, martxa hartu eta txisteak kontatu ahal izateko. Zuzenbideko klaseez gain, Sienako unibertsitateak italiera ikasteko ikastaroa antolatu du Erasmus ikasleontzat. Izena eman nuen eta oraingoz behintzat esan dezaket oso ondo datorkidala klase hauetara joatea.

Ikusi al duzu unibertsitate italiarraren eta hemengoaren artean ezberdintasunik? Euskal Herrian klaseak euskaraz jasotzen ditudanez, askoz ikasle gutxiago izaten gara klaseetan, eta irakasleekin beste harreman edo gertutasun bat izaten dugu, ez beti, baina gehienetan. Hemen, aldiz, klaseetako ikasle kopurua askoz handiagoa da eta irakaslea beste harmaila baten atzean ikusten dut, ez dago hain gertu, edo nik behintzat ez dut gertu igartzen. Aipatutako gertutasun horrek, nire iritziz, asko ematen dio ikasleari, bai akademikoki, baita sozialki ere. Horrez gain, hemengo irakasleek oso ozen hitz egiten dute, altuegi, ohiuka. Klasera erdi lo joanez gero espabilatuta irteten duzu…

Pandemia oso gertutik bizi izan zuen Italiak ere... Zer moduz dago egoera orain? Nik, Sienan bizi dudana ikusita, nahiko lasai ikusten dut egoera. Egia da gero eta neurri murriztaile gehiago ari direla hartzen eta bi astetako kontua izan daitekeela egoerak okerrera egitea, baina oraingoz lasai dago. Hori bai, entzuten denaren arabera, Italiako zenbait eskualdetan badago larritasuna, baina ez da Toscanaren kasua, oraingoz behintzat.

Etorri nintzenean Mutrikun bi hilabete gindoazen maskara kalean 24 orduz janzten, eta hona iristean hemen ez zen beharrezkoa. Hasieran, kalean jendea masakararik gabe gurutzatzeak urduri jartzen ninduen, baina gero segituan hemen ere maskara kalean janzteko neurria hartu zuten. Azken hartu diren neurrietako bat taberna eta jatetxeak arratsaldeko 18:00etan ixtea izan da.

Nola daramazu zure “normaltasun berria” beste herrialde batean, beste kultura batean? Kultura aldetik ez dut ezberdintasun handirik ikusi, ez dut ikusi inora egokitzeko beharrik. Gustura nago eta nik uste Sienako herriak Erasmus ikasle guztiok ondo hartu gaituela. Nazioarteko Erasmus ikasle asko ikusten dira eta horiek, agian, bai izan dutela bizimodu italiarrera egokitu beharra, baina ez da hori izan euskaldunon kasua. Ni etxean bezala bizi naiz; nik uste hori horrela izatearen arrazoietako bat beste ikasle euskaldun batzuekin batzea eta euskaraz egiteko aukera izatea ere izan dela.

Noiz aurreikusten duzu Mutrikura bueltatzea? Hasiera batean, nire asmoa abenduan itzultzea da, Gabonak bertan igarotzeko, familiarekin eta lagunekin egoteko sasoia dela uste dudalako. Hala ere, Euskal Herrian gauzak nola dauden ikusita, ez dakit horretarako aukerarik izango dudan. Baina, beno, itzultzerik ez daukadan kasuan, beti izango dut familia eta lagunekin kontaktuan egoteko aukera eta, ahal den heinean, beraien ondoan egotekoa, urrutitik bada ere.

Gero ikasturte osoa egingo dut Sienan, uztailera arte, gauzak okertzen ez badira behintzat. Daukadan aukera ahalik eta gehien nahi dut aprobetxatu, nahiz eta uztailean gustura egingo dudan buelta Mutrikura. Ea ordurako gauzak hobeto dauden!

Zeren falta somatzen duzu gehien? Etorri aurretik uste nuen bezala, familiaren eta lagunen falta asko somatzen dut, baina badakit beren egunerokotasunarekin jarraitzen dutela eta itzultzen naizenean bertan jarraituko dutela. Horrez gain, itsasoaren falta ere igartzen dut, Sienara ez da kresal usainik iristen… Gustura emango nuke pasiera bat Leunekin mollan!

Matxo bat eta besarkada handi bat danoi Sienatik. Zaindu neri herrixa. Laste nator!

Beste besarkada bat zuretzat, Eneko. *Ci vediamo presto*!

JENTILEN GAINETIK, KOBETA NAGUSI ARNON

Bi urte pasatu dira Arnoko karst-a esploratzen hasi ginenetik, atzo hasi ginela dirudien arren. Lana gogoz egin dugu tarte honetan , eta Kobeta altxor bihurtu zaigu. Ile urdina orrazten dugunok eta ilunetan argi egiten duten gazteok osatzen dugu taldea. Mutrikuarrak gehienak, ondarrutar batzuk ere bai, eta aingeru guardakoa deitzen diogun gernikar bat ere gurekin da.

Bere barrunbeak bisitatzen ditugun bakoitzean Kobetak harritu egiten gaitu hango meandro, gatera, eskalada eta gela berriekin. Orain 20 urte Leizarpe taldeak egin zuen topografiari 2.000 m. gehitu dizkiogu. Momentuz 3.383 metrora heldu gara, eta seguru gaude Gipuzkoako 100 leize garrantzitsuenen zerrendan sartuko dela.

Gaur egun, Kobeta sistema bihurtu dugu, sarrera berri bat aurkitu baitugu: Kobeta III. Sarrera hori errazagoa eta seguruagoa da. Aldi berean, 120 metroraino azkarrago jaistea ahalbidetzen digu eta hortik abiatuz gure lanak norabide ezberdinetan banatzen ditugu. Horrez gain, barruan gaudela zerbait gertatu eta erreskatatzera etorri behar izanez gero, lana errazten du sarrera honek, Kobetako sarrera zaharretik oso zaila izango bailitzateke.

Ordea, gure atentzioa ez da Kobetara soilik mugatzen, inguruotan ezagunak diren koba guztiak katalogatu eta topografiatzen ari baikara. Iruroinen kasuan, metro batzuk gehitu dizkio topografia berriak. Izen eta abizenak jarriko dizkiegun hogei bat zulo berri aurkitu ditugu, eta horien kontserbazioa mantentzeko asmoz momentuz ez ditugu beren kokapenak publiko egingo. Aranzadik katalogatuta zeuzkan 56 zuloetatik 159ra pasatu gara.

Bestalde, bi kobatan arkeologia eta paleontologia hondarrak aurkitu ditugunez, horiek kudeatzeko Munibe Arkeologia taldearekin elkarlana hasi dugu, eta Geoparkeko arduradunekin ere berdin egiteko asmoa dugu, Mutrikuri dagokionez. Arnoko karst-ean egon ziren mehatzen mapa ere egin nahiko genuke, horiek lokalizatu eta markatuta. Horretarako erakunde ezberdinen laguntza beharko dugu.

Gainera, Udalarekin eta Geoparkearekin elkarlanean Olatzeko bailara eta Mutrikuren ondarea hobeto baloratzeko lana egiteko prest gaude.

Covid19-a berrogei metroko zuloa jaistea baino arriskutsuagoa izanik, osasun gomendioek gauzak asko mugatu dituzten honetan, ezin izango dugu Zabiel Kultur Etxean hitzaldirik eman iaz bezala, kontu hauek sakonago azaltzeko. Hurrengo urtean Mutrikuko inguruak esploratzen jarraitu ahal izateko baimena emango digun esperoan.



ENPRESA TXIKIENTZAKO LAGUNTZAK

Pertsona autonomoei eta enpresa txikiei laguntzeko aholkularitza-zerbitzua jarri du martxan Debegesak, Debabarreneko Garapen Agentziak, COVID-19ak eragindako zailtasun ekonomikoak dituzten enpresei zuzenduta. Modu pertsonalizatuan emango zaie arreta, autonomo eta ETE (Enpresa Txiki eta Ertain) bakoitzaren egoerara moldatuz.

Enpresaren egungo egoera aztertzea, negozioaren diagnostikoa egitea, etorkizuneko urratsak finkatzea eta diru-laguntzen/laguntza-programen berri ematea da programa honen helburua.

Debegesak, pertsona autonomoei eta ETE bakoitzaren egoerara moldatuta, arreta pertsonalizatua eskainiko du. Aholkularitza programa honen lehen urratsa autonomo edo ETEaren COVID-19aren ondorengoko egoera aztertzea izango da. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Mondragon Unibertsitateak elkarlanean egindako erremienta erabiliko da diagnosia egiteko. *Abiapuntua eta Etorkizuna* izena du erramintak eta enpresen egoera aztertu eta radiografia bat egiten laguntzen du.

Bestalde, etorkizuneko beharrak asetzeko eskuragai dauden dirulaguntzak eta laguntza programen inguruan informazioa emango da. Zerbitzua doakoa da eta eskualdeko edozein pertsona autonomoei eta ETE txikiei zuzenduta dago.

Interesa duen edozein enpresak Debegesarekin jarri beharko du harremanetan ekintzaile@debegesa.eus helbidera idatziz edo telefono honetara deituz: 943 82 01 10.

MUTRIKUKO AECCren ESKER ONA

Mutrikuko AECCren esker onak herriari

AECC Minbiziaren Aurkako Elkarteak eskerrak eman nahi ditu urriaren 19an jasotako erantzun beroagatik. Garai zailak izan arren, aurten ere ez du hutsik egin bularreko minbiziaren aurkako borrokan herritarrengadik jasotako konpromisoak.

Gogora ekarriz 15 segunduz behin munduko emakume bati tumore gaizto horren diagnostikoa egiten zaiola, eta Gipuzkoako 545 pertsonarengan izan zuela eragina 2019 urtean, diagnostiko eta prebentzio goiztiarrak gako izaten jarraitzen dute.

Aurrerantzean ere herritarren babesa eta indarra izango dugula badakigu. Eskerrik asko.

UDALAREN EGUTEGIRAKO ARGAZKIAK

Mutrikuko 2021 urteko egutegia egiteko argazkiak aukeratzeko lehiaketa antolatu du udalak, azken urteetan egindako moduan.

Lehiaketaren gaia, Mutrikuko altxorrak (ondarea, natura, pertsonak, animaliak, paisaia, ohiturak...).

Epaimahaiak hilabete bakoitzerako aukeratuko duen argazki bakoitzari 80 euroko saria egokituko zaio, eta herritarrek aukeratzen duten argazkia egutegiaren azalean argitaratuko da eta egileak Bertaneko 80 euroko bonoa eskuratuko du.

Covidak eragindako egoerak hala behartuta, herritarren saria erabakitzeko online erakusketa bat prestatuko da eta bertan bozka bidez argazki bat aukeratuko dute bisitariek.

Lehiaketaren oinarriak www.mutriku.net helbidean kontsulta daitezke informazio gehiago jaso eta edozein zalantza argitzeko.

Lanak aurkezteko epea azaroaren 26an amaituko da.

GIPUZKOAKO EGUTEGIAN, MUTRIKUARRA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Argazkilaritza Elkartearekin elkarlanean 2021 urterako egutegia egiteko argazki lehiaketa antolatu du. Laugarren edizio honetan. 1.115 lan aurkeztu dira Gipuzkoako turismoa gai hartuta. Antolatzaileek adierazi dutenez, lurraldeko turismoari, altxor naturalei eta biodibertsitateari balioa ematea izango da egutegiaren helburua.

Foru Aldundiaren eta Argazkilari Elkarteen ordezkariek osatutako batzordeak 13 lan aukeratu ditu, bat azalerako eta beste 12, hilabete bakoitzerako bat. Baloratu dituztenak, irudien kalitate tekniko zein artistikoa eta aurtengo gaiarekin duten erlazioa. 18 urtetik gorako argazkilari zaletuek zein profesionalek parte ahal izan dute.

Egutegiaren azalean erakutsiko den argazkiaren egilea Iker Aizkorbe izan da. Barruko argazkien artean bat, apirilari irudia ipiniko diona, Ander Urrosolo mutrikuarrarena izango da. Zorionak Ander.

UMEEK ERE MEREZI DUTELAKO

Urrian Pirritx, Porrotx eta Mari Motots izan ziren Mutrikun, Udalak antolatutako ikuskizunean. Covidaren eraginez lehenago ohizkoak ziren ekitaldiak jausten ari diren garai honetan, mutrikuar gazteenek eta beren gurasoek hiru artistek eskainitako tarte ederraz gozatzeko aukera izan zuten. Segurtasun neurri guztiak beteta, berriz ere agerian utzi zen kultur ekimenak antolatzea posible dela, nahiz eta horrelakoek bere-bereak izaten dituzten ezaugarriak galtzen diren. Oraingoan, adibidez, mutrikuar gaztetxoek ezin izan zituzten pailazoen muxuak jaso. Baina etorriko dira garai hobeak, pailazoen musuak jasotzekoak.

Covid-19 URRIAN

Urrian Covid-19 koronabirusaren bigarren olatuan sartu omen gara. Gaisotuen eta ospitaleratuen kopuruak handituz joan diren neurrian, neurri zorrotzak hartu dira guztiontzat. Gure herrian lehenago okerrago egon garen arren, neurriak ere aplikagarriak dira eta, ondorioz, honez gero denok ezagutzen ditugunak bete behar ditugu; gaueko hamarretarako etxeratzea, ostalaritza itxita egotea, soziedadeak eta lokalak ixtea, sei lagun baino gehiagoko taldekatzeak ez egitea.... Horiek guztiak denon osasunari begirako neurriak izanik, denok gaude bete beharrean. Ea egoerak hoberako bidea hartzen duen eta bake piska bat ekartzen digun. Bitartean, herriak herria zaintzen jarraitu beharko du.

URRIA
43 positibo

egunak	1	2	3	4
Covid-19 positiboak	0	2	1	0
aureko 14 egunetan metatuta	8	10	11	10
100.000 biztanleko 14 eguneko intzidentzia tasa	149,98	187,48	206,22	187,48

5	6	7	8	9	10	11
4	1	0	0	0	0	2
14	15	15	14	13	10	12
262,47	281,21	281,21	262,47	243,72	187,48	224,97
12	13	14	15	16	17	18
1	2	2	5	2	2	2
11	13	15	20	20	21	23
206,22	243,72	281,21	374,95	374,95	374,95	431,20
19	20	21	22	23	24	25
1	0	4	2	2	0	2
20	19	23	25	27	27	27
374,95	356,21	431,20	468,69	506,19	506,19	506,19
26	27	28	29	30	31	
2	0	1	0	3	0	
28	26	25	20	21	19	
524,93	487,14	468,69	374,95	393,70	356,21	

Jose Juan Uranga Iparragirre

Xakea eta zuhaitz genealogikoak zaletasun

Gasteizen batxilergoa egiten ari zela sartu zitzaion xake-jokoaren pozoia zainetan, eta, jubilatu ondoren ere, hor jarraitzen du probintziako txapelketetan parte hartzen Mutrikuko *Txaturanga Xake Talde*arekin.

Garunaren garapeneko kirolaz gain, zuhaitz genealogikoak eraikitzea da bere beste zaletasunetako bat, eta lagunen zein ezagunen familien sustraiak arakatzen ibiltzen da.

Noiz jarri zenuen zure aurrean xake-taula bat?

Aita Martzelo ume ginela joan zitzaigun lau anai arreba utzita eta ama Manolita haurdun -umea jaio eta bost egunera hil zitzaigun-. Horregatik, amari laguntzeko, orduko instituzioek Hondarribiara bidali ninduten Jabier anai zaharrenarekin batera, barnetegi baten bizi eta ikasketak egitera. Zazpi urte nituen orduan, eta maisuetako batek ahalegin handiak egin zituen xake-jokoan taldetxo bat prestatzeko. Gogoz hartu genuen taldeko lagunok, eta lasterrera maisuari irabazten genion... Ez dut uste oso iaioa izango zenik. Gustua hartuz joan ginen eta geure denborapasa garrantzizkoena izan zen.

Lau urte igaro ondoren, Gasteiz izan nuen hurrengo barnetegia, batxilergo ikasketak egiteko. Han bazegoen talde txiki bat xakean aritzen zena, tartean, gogo handiz hartzen zuen eta txapelketak irabazitako zarauztar bat, maila emango zuen aurkari baten atzetik. Laster lotu ginen xake-taula baten aurrean. Hasieran kristoren paloak ematen zizkidan, baina poliki-poliki aurre egiten hasi nintzaion: igande arratsalde osoak pasatzen genituen jokoan.

Beste kirolik praktikatzen al zenuen?

Beka bat nuen barnetegian ikasketak aurrera eramateko, eta bertan ematen zizkiguten, baita ere, kirola praktikatzeko jantziak. Herrian txandal batekin amestu ere egiten ez genuenean hala praktikatzen nituen eskubaloia, saskibaloia..., eta gehienbat atletismoa: inoiz ez futbola, ez nuen gustuko.

Mutrikura etorri, txandala jantzi eta korrika egitera ateratzen nintzenean, ohikoa ez zenez, txundituta uzten nuen ama: baina nora zoaz horrela! Baina, laster hasi ginen kuadrillan zigarrotxoak-eta erretzen eta korrika egiteko ohiturak alboratzen. Xakea ez nuen ahaztu, baina gutxi batzuetan erabiltzen genituen "Mendixa"neko tabernan zeuzkaten taulak.

Mutrikura itzultzean, noiz heldu zenion arduraz xakeari?

Ezkondu eta alaba zaharrenari eskolatzeko ordua iristerakoan San Miguel ikastetxera eraman genuen, eta, guraso eta irakasleen kontuak tarteko, laster hasi zen Marisa emaztea eskolaz kanpoko antzerki ikastaroak ematen. Berak eskatu zidan ea umeei erakutsiko nien xake-jokoan; baietza eman, eta han jarri zidaten aurrean berrogei haur xakean ikasteko prest. Nola ekin hainbeste haurrekin? Gelatxo bat utzi zidaten, eta, ahal genuen eran, hasi ginen fitxak eta euren mugimenduak ezagutarazten arratsaldeko lauetatik aurrera.

Denbora bat igarota, monjak saiatu ziren txapelketetan parte har genezan, eta, hala, hasi ginen Debara joaten lauko taldetan. Hasiberriok, normala denez, galdu egiten genituen partidak, baina iritsi zen klasifikatzea ere, eta, hurrengo pausoa emanez, Elgoibarreraino iritsi ginen bailara mailako txapelketan. Larunbat goizetan jokatzen genuen, baina, jada koskortzen ari ziren haurrek deskubrimendu bat egin zuten irabazteak adina motibazio eman ziena: luntxa, pintxo eta freskagarriekin! Arrasateraino iristen ginen bailarako herrietan zehar.

Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak...)
egunero zabalik
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

Bailarako herriekin jardutean, hurbiletik ezagutzen joaten zara pertsonak eta xakeak beste herrietan duen egoera, eta kazkarrari bueltak ematen hasten zara, beste urrats baten beharra somatuz. Egun batez, bost minutuko partidetan parte hartzera gonbidatu gintuzten; sekula erlojurik erabili gabea nintzen, baina han joan ginen parte hartzera beste lau haurrekin. Eta huraxe izan zen antolatze beharra piztu zuen metxa.

Eta Mutrikuko Txaturanga kluba sortu zenuten...

Ordurako herrian antolatzen ziren tabernetan noizbehinka xake txapelketak, eta inguruan ibiltzen ziren pertsonekin bilduz kluba aurrera eramatea erabaki genuen: 1986a zen. Gurekin hasitako ikasleak mutil kozkorrak ziren eta Ikastolan hezitakoak ere bildu zitzaizkigun, eta, hala, udalari laguntza eskatu ondoren, diru apur batekin jabetu ginen gure bidaiak ordaintzeko. Gasteiz eta Castro Urdialeseraino iristea lortu genuen, eta Zabiel Kultur Etxean erabilera anitzeko gela larunbatetan jarduteko.

Urrats bat bestearen atzetik emanez gorpuzten joan ginen, eta gure lokal bezala erabili izan ditugu udalaren toki ezberdinak: hiltegi goikoa, gaur emakumeen lokala dena, Luardokoa, eta, orain, Beheko Plazako anbulatorio zaharrean aritzen gara.

Haurrak eskola-kirolean parte hartzen dutenez, adineko hamar lagun ari gara egun klubean, neu zaharrena 65 urterekin eta gazteenak 25ekin, probintzia mailako ligetan parte hartzen; aurten 2. mailan ibili gara eta datorrenean 1. mailan jokatuko dugu. Bi orduko partidak izaten dira, eta jokaldi bakoitzeko hogeita hamar segundo gehitzen zaizkie. Indibidualki bat edo bi lagunek ere parte hartzen dugu federazioak edo udalen batek antolatzen duten "open" edo irekietan.

Anekdota bezala kontatuko dizuet horietako baten hartu nuela parte Donostian, eta Huescako zazpi urteko neskatxa bat tokatu zitzaidala aurkari: izugarrizko jipoia eman zidan. Abu Dabitik (arabiar emirerria) zetorrela komentatu zidan bere amak, mundu mailan bere kategorian bigarren egin ostean. Pena da Mutrikun emakumezkorik ez lerratzea gure klubean!

Zer ematen du xake-jokoak, eta nola trebatzen zarete?

Batetik, esango nuke elkarren arteko giroa, non gerra psikologikoan ibili ondoren, lagun arteko giroa sortzen den. Bestetik, gure garunaren garapena eta kontzentraziorako gaitasuna handitzen dira. Beste anekdota bezala, partida baten, eta ekipoko lagun batek esanda, bestela ez nintzen jabetuko, mugimendu bat egiten ordubete iraun omen nuen.

Sasoi baten ez bezala, trebatzeko erraztasun handiak ditugu egun: sarean daude xakeko programak, eta makinaren aurka egin dezakezu nahi duzun mailako abantailak zure alde jarriz.

Xakeaz beste, baduzu ezohikoa den beste zaletasun bat ere...

Batxilergoko ikasketak egitean oso gustuko nuen historia, zaletasun hori gaur ere badut, nahiz-eta aukera askorik ez diodan eman, alabei ikasketetan laguntzeko ez bazen; orduan maiz izaten nituen eskura entziklopediak, baina zuhaitz genealogikoak osatzeari ematen diot denbora gehiago: asko erakartzen nau.

Eta nola eta nondik hasi zinen horretan?

Aldizkari bat erosi nuen behin, eta berarekin batera oparitzen zuten "*Nola egin zuhaitz genealogikoa*" CD bat. Ordenadorean deskargatu, eta nire familiaren nondik norakoak jakin nahian datuak sartzen hasi nintzen. Ordurako, aitaren eta amaren faltan, hurbilekoengana zuzendu nintzen ezagutzen zituzten familiakoen izen abizenak jasotzeko. Aurrera egin nahian, banuen harremana Jabier Basterretxea "Txordo"rekin, eta hark lagundu zidan sakristiara, non nire lehen altxorra aurkitu nuen. Baina nire amona Sotera elgoibartarra zenez, beste ahalegin bat eskatzen zuen, eta Donostian Seminarioko Artxibora zuzendu nintzen: harro, "ikertzaile" karneta jaso nuenean. Orduan, mormoiek egindako argazkiak zeuden mikrofilmetan eta txandak hartu behar izaten genituen pantailan filmak ikusteko; larunbatetan baino ezin nintzen ni bertara joan. Egun batzuetan ibili arren, Ayayabar gure birramonaren bigarren deituraren arrastorik ere ez nuen aurkitu. Etsita utzi egin nuen urte batzuetan.

Bekadunak jarri zituzten mikrofilm haiek digitalizatze lanetan, eta, aukera izan nuenean, berriro agertu nintzen artxibotik. Errazago egin zitezkeen jarraipenak, eta, hara, bitxikeria: gure birramonaren deitura ez zen Ayayabar, Oyarzabal baizik. Askotan agertzen diren grafia kontuak. Ez adar guztietan, baina 1500. urteraino jarraitzea lortu nuen. Ondoren, lagunak hasi ziren eskatzen, eta hor saiatu izan naiz nahi zutenei erantzuten. Argentinar eta uruguaitar batzuei ere egin izan diet euren zuhaitz genealogikoa, arbaso mutrikuarrak zituztela jakitun, Udaletxetik galdezka pasatu izan direnean.

Historian sakondu izan al duzu?

Ez. Apur bat ibili izan naiz, baina beti Jabier "Txordo"ren txalupa mutil. Hura zerbait arakatzen hasten denean, prest nago beti ahal dudan mailan laguntzeko.

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

Camping
Galdona
JATETXE ETA ERRETEGIA
Galdona Baserria
Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU

HAIZIA, itsasuan eta lihorrian (II)

Indar haundikua edo makala izan leike haizia, pixkaka-pixkaka kargatzen juan leike edo bat-batian etorri, eta, nahi doanian, badaki orain hamendik eta gero handik jotzen. Hori kontu jakiña da, bai; baiña, ba al dakigu hitzez azaltzen haiziaren gorabehera horrek? Eta, bezperatik edo ordu batzuk lehenagotik, ba al dakigu haizia ekarriko ete doan? Lehengo zaharrek bai, behintzat.

Haizia bueltaka

Bada haize klase bat, orbelak, ostruak edo harrapatzen doana bueltan-bueltan altzatzen doana: *haize-zurrunbillua* edo *zurrunbillua*. Batzuek *sorgin-haizia* esaten dixue haize klase horri. Nahiz trumoi-haiziak, nahiz bazter-haize zakarrak ekarri leike. Ezagutzen ditxugu azpixetarako batuta zaken garua haize klase horrek eraman dixuen baserritxarrak.

Lihorretik itsaso zabalera eginda, *trabaiñarrua* edo *tramaiñarrua* topatu geinke. Telebistan ikusi ditxugun "tornado" haundixen antzekuak izaten dira. Konill bat bezelakua da tramaiñarrua, puntia itsasora dakala. Itsasotik ura hartu eta gora altzatzen deu, eta ez ura bakarrik, edozer harrapatuta ere aidian eruaten deu. Oso arriskutsua da. Mutrikun, maiñel bat behintzat galdu zoan trabaiñarru batek. Egunkarixak hola eman zoan horren berri: "*un tifón surtido de golpe*". Hurre suertatu ezkero, lihorretik ere ikusi leikez itsasoko tramaiñarruak. Galernazuak ekartzen ditxu, baitxa mendebalak ere *berde* daguanian.

Itsasoko haiziak

Haiziaren indarrari erreparatzen dixue arrantzaliek, bai arrantzarako, bai txaloparen martxa egokirako... Haizerik makalenetik gogorrenerako errepasua egingo degu.

Batere haizerik jotzen ez doan egunetan itsasuan *kalma*, *kalma txitxa* edo *kalma zurixa* daguala esaten degu.

Indar gitxiko haiziari *haize aidua* esaten dixue maiñelek. Indarra hartu aurretik, halaixe esaten zako indar gabeko haize horri. Barruko haize flojo-flojuari, esaterako; baiña edonungua izan leike *aidua*, nortekua, lestekua... 3-4 korapillo ingurukua da. Beste izen batzuk ere hartzen ditxu: *haize makala*, *haize flojua*, *haize txikixa*...

Batzuentzat *haizetxua* eta *haize aidua* dana da bat, baiña beste batzuek *haizetxua* indar haundixagotzat daukae. Baten batek erderazko "ventolina" aitxatu digu haizetxuaren esanahixa argitzeko orduan.

Brisatxua edo *haize pixkia* esaten zako jeneralian errixuetatik edo barrutik datorren haize makal-makalari.

Eta *haize berdia*? Arrantzaliek bi zentzutan erabiltzen deue izen berezi hori. A.-Haize ekarri berrixa, jotzen hasi berrixa, baiña bere indartxua daukana. B.- Ez haize makala, ez haize gogor-gogorra, tartekua. 10-12-15 korapillo ingurukua. Hasieran *berdetxua* da (10 bat korapillokua) eta denboriarekin zakartzen juten da, harik eta *berde-berde* jarri arte. *Haize berdia*, batzuetan pixka bat molestua izan arren, berez, ez da txarra arrantzarako.

Batzuen esanetan *haize berdia* baiño gogorragua da *haize freskua*. Azken horrek indar haundi samarra daka, eta, kontrakua ematen doan arren, izena ez deu hartzen tenperaturiagaitxik. 15-20 korapillokua da.

Sarritxan, haizia berde-berde dauanian haize hori gogortzen juaten da, zakartzen. *Haize zazkarra* esaten zako. Haize gogorragua da, 20 korapillotik gorakua.

Haize aldakorrari (errez kanbixatzen dana) *alkahuetia* esaten zako. Oraintxe bai, gero ez... Edo, oraintxe hemendik jo, gero handik... Esaterako, oraintxe mendebala, hurrenguan lesteko haizia, gero barruko haizia... Maiñelek ondotxo ezagutzen deue *haize alkahuetia* edo *haize alkahueterua*.

Haizia eta olatuak

Aurreko baten olatu klasiak aitxatu genduzenian, lau izen behiñik behin esan gabe laga genduzen: *haize lakarra*, *erlaixa*, *haize-olatua* eta *trapaillaria*.

Batzuek olatuekin dabillen haiziari esaten dixue *haize lakarra*. Bigarren izena –*haize erlaixa*–, berriz, itsasua bare-bare egonda olatu txiki-txikixak ateratzen ditxuan haizia da, bazter haizia gehixenetan. Haiziak sortzen ditxuan olatuei *haize-olatuak* esaten dixue arrantzaliek.

10-15 korapilloko haiziak sortzen doan olatua daguanian esaten da *trapallaria*. Eguraldi eskasari, olatuak eta haizia dakarrenari ere esaten zako hola. Esaterako, arrantzaliak Atxukalera juan eta katxopak-eta ikusten zitxuenian halaixe esaten zeuen: "*trapallara earra ro gaur!*". Baten batek esan digu haizia egon eta kalmatzen danian, hurrengo egunian lagatzen doan olatu zakarra dala *trapallaria*. Olatuak bajatzen dira, baiña *trapallaria* geratzen da. Konparaziotarako, gaur 30eko haizia ibilli ezkero, bixar ez juan itsasora ze *trapallaria* egongo da-eta.

Txaranbela

Indar haundiko haize-kolpiari edo bat-bateko haize gogorrari *txaranbela* esaten dixue maiñelek. Itsasotik keia bezelakua ateratzen deu, gurmia ematen doana. Batzuetan kardal inguruan bistatzen dan *bisutsaren* (bits+hautsa) estiloko zuritxasuna lagatzen deu.

Urrutitxik somatzen da *txaranbela*, zuri-zuri. Holakuetan, kalma-uniak egoten dira, eta gero *buuu!* haize-bolada haundixak. "*Han, txaranbeletan do haizia!*".

Mutrikun ezaguna da "Txanbel" ezizena. Itxura danez, izen hori arrantzale batzuek orain dala 150 urte baiño gehixo eukitxako eztabaida batetik dator. Tabernan zozela batek esan ei zoan itsasoko haura *txaranbela* zala, bestiak ezetz. Eztabaida hartan bati bigarren bataio-izena jarri zixuen, kresal usaiñeko ezizena. Jose Manuel Etxeberria Olazabal (Mutriku, 1837) da "Txaranbel" ezizenarekin ezagutzen degun lehelengua. Gerora, *Txaranbel* > *Txanbel* izatera pasatu zan.

Txaranbela galernaren aurrekarixa edo abantzadia izaten dala ere entzun degu.

Golpeko haizia eta galgoia

Mendebalak edo suroesteko haiziak batzuetan *golpeko haizia* ekartzen deu, galernia. Sarritxan, haizia eta eurixa, bixak batera.

Eguraldi bero-beruarekin eta itsasua kalma zurixan daguala, haren bueltan golpia etorri leike: galernia eta euri-zaparradak. Horri *galgoi-eguraldixa* esaten zako. *Galgoia* peligrosua da, galernazua ekarri leike-eta. Arrantzale batzuek eguraldi txarretik hobera egitxen doan tartiari (edo kalma-uniari) esaten dixue *galgoia*.

Haize-ekarreria eta boladak

Haizia normalian pixkaka-pixkaka juaten da kargatzen. Kalma do, eta haizia *bri-bri-bri* hasten da, gero eta gehixo... ekartzen eta ekartzen hasten da; hasiera horri *haize-ekarreria* esaten zako.

Haize-boladia, berriz, ekarrialdi edo joaldi bat da. *Haize*



bolara gogorrak diozek!

Haizia eta barkua

Arrantzalientzat oso garrantzitsua zan, itsasuan zozela, aburo eta hitz egokiz esatia haizia nundik zatorren: nabigatzeko, "etxaria" egitxeko...

Barkuan gozela, *haizeko aldia* esaten zako haiziak jotzen doan tokixari; erderaz "barlovento". Eta kontrako aldiari, berriz, *haizebia*; erderaz, "sotavento". Konparazio baterako, haiziak jotzen doan aldera juan ezkero, *haizeraka* guazela esango degu, haizian barruna. Eta haiziari bizkarra emanda baguaz, *haizeberaka* edo *haizeberutz*.

Mutrikuko baserritxarrek badakixe, ondo jakin ere, haiziak gogor jotzen doan parajia *haizelekua* dala. Babestuago daguanari, berriz, *haizebia* edo *haizeostia* esaten dixue.

Baiña, itsasora bueltatuta, *haizeraka* edo haiziaren alderdira juatiari *brankera* ere esaten zako, barkuaren aurria edo branka haiziaren aldera dijualako. Asko sufritzen deu barkuak *brankera* dijuanian, baiña haizia atzetik etortzen bazako (*popa-haizia*), haiziak berak laguntzen dio. Orduan esango degu, *poparik* guazela, *poparian*.

Geure erara edo geure martxan datorren haizia dabillenian, *erako haizia* daukagula esango degu. Galiziara baguaz, adibidez, iparra *erako haizia* da; Galiziatik Mutrikura bagatoz, berriz, mendebala da *erako haizia*. Horrelakuetan "*haiziaren erara*" guazela entzun degu.

Barkuaren kostadutik jotzen doanari *trabeseko haizia* esaten zako. Esate baterako, zu norteraka baldin bazuaz, mendebala da trabeseko haizia.

Belako haizia edo *bela-haizia* esaten zixuen belan ibiltzeko haize aproposei, nordesta adibidez. Haize seguruak bihar ziran belan ibiltzeko. 10-15 korapilloko haiziak izaten ziran egokixenak.

Atunetarako haize egokixari, berriz, *atun-haizia* esaten zixuen. Jeneralian mendebaltxua izaten zan atun-haizerik egokixena.

Ekarriko al deu haizia?

Inguruko elementuei begira bizi izandako baserritxar eta arrantzaliei ikasitxa dakigu haiziari bezperatik atera leikixola arrastua.

Animalixek lehenagotik igartzen deue haizia datorrela:

- Mozolua egun argiz *uuu!!* (uluka) badihardu, bixaramunian haizia. Beste batzuen ustez horrek hurrengo egunian edurra ekarriko zoala markatzen zoan.
- Uso paso haundixa danian, hurrengo egunian eguraldi txarra, galernia edo mendebala.
- Antzar asko pasatzen danian, bixaramunian hotza, *Frantzi-iparra* izeneko haizia-edo.
- Katuak aurpegixa nora begira garbitzen doan, handik etorriko da haizia.
- Behixak alderdi batera begira baldin badoz, haizia kontrako aldetik etorriko da.

Zeruko astruek ere pista argixak ematen diguez:

Illatergixak bueltan-bueltan arua edo eraztuna bezelakua dakanian, bixaramunian bazter-haizia. Beste batzuek esan digue illatergixak alderdi bixetako puntak bizi-bizi dakazenian hego haizia datorrela.

Izarrak *bri-bri-bri* mugimendu haundixan dabiltzenian, hurrengo egunian hego haizia datorren seiñalia.

Lehengo zaharrek garrantzi haundixa ematen zixuen eguzkixaren sarreriari. Garbi sartzen bazan, bixaramunian eguraldi ona; baiña, sartzen zijuala laiñuek tapatzen bazeuen... bixaramunian mendebala edo noruesta... Eta eguzki ingurua beztutzen bazan... atento!

Siñeskerak eta esaerak

Sasoi baten sikatia zauanian errogatibak egitxen ziran, baserrialdian entzun degunez batzuek esaten zeuen eurixa egitxeko erregurik onena zan hiru haize klasek burrukan egitxia. Konparaziotarako, mendebalak, erreka-haiziak eta iparrak. Horri *haize-burrukia* esaten zixuen.

Arrantzale zaharren esanetan itsasuan ez da komeni txistua jotzia; "*Ez txistuik jo, haiziak berak joko deu-ta*". Uste zeuen, norperak jo ezkero haizia ekarriko zoala, mendebala edo galernia...

Haiziari lotutako esaerak (eta antzekuak) entzun leikez Mutrikun. Hona hemen batzuk:

- "*Goiz gorri illuntze euri, eta illuntze gorri goiz haizetsu*" edo "*Gau gorritsu, goiz haizetsu*". Mutrikutik Donostia aldera begiratu eta illuntze gorrixa baldin badator, goizian haizia; eta goiz gorri baldin badator illuntzian eurixa.
- "*Edur gaiñeko haizia, hotza*".
- "*Haiziak ekarri eta haiziak eruan*". Konparaziotarako, erreka-haiziak alderdi batetik jotzen deu eta orbelak eruaten ditxu beste aldera, gero etortzen bada mendebala, mendebalak beste aldera botatzen ditxu atzera.
- "*Haiziak eta eurixak ateratzen ditxu begixak*". Neguan hotza egoten danez, eurixak edozeiñi ere miñ ematen dio; udan, berriz, euri zaparraria bota eta "*ño! hau preskuria!*". Neguan euri tantiak ere miñ ematen deu, endemas haiziakin baldin badator.
- "*Horren esanakin eta haiziarekin ez juan iñora*".
- "*Noa dijuan haizia hara jungo da laiñua*".
- "*Zu haiziaren direkziuan beti*".
- "*Haizia buruan eta ibilli munduan*". Buruariñei esaten zakue hori.

Amaitzeko, geure herriko baserritxar bati entzundako esaldi egokixa: "*Nahiz alde batekua izan, nahiz bestekua izan, haizia tamaiñan ona*".

Josu Larrañaga Arrieta

wikiloc

Munduko ibilbideak

Wikiloc, lekuak ezagutu eta aire librean oinez, bizikletaz edo beste jarduera askotako ibilbideak elkarbanatzeko tokia da.

Inklusibitatea da Wikiloc-en balio nagusietako bat, eta, hori dela eta, hizkuntza nagusien ondoan bizi diren hizkuntza txikiagoetan edo hiztun gutxiago dituztenetan ere eskaini nahi du bere plataforma.

Webgune honetan erabiltzaileek mundu osoko hamaika ibilbide aurkituko dituzte erabiltzeko prest. Aurretik beste erabiltzaile batzuek egindako bideak bertan aurkituko ditu ibilbide jakin bat egin nahi duenak, eta hasiera eta bukaera jakinak dituen ibilbide baten aukera ezberdinak ere eskura izan ditzake.

Aplikazioaren erabilpenak erabiltzaileek erabakiko badituzte ere, hainbat eratan egiteko ibilbideak topa daitezke bertan: oinez egiteko mendi ibilbideak, mendiko bizikletan egitekoak, zikloturismoa, urpekaritza, bela... Eta gure herriari lotutako ibilbideak ere asko dira modu batera edo bestera egiteko modukoak. Hasi PR-GI-022 Mutrikuko itzuliarekin eta beste hainbat eta hainbat.

Wikiloc-ek norberak egin nahi duen ibilbidea grabatzeko aukera ere ematen du, eta ondoren partekatzeko ere bai.

Hemendik aurrera euskaraz ere erabili ahal izango da Wikiloc webgunean (https://eu.wikiloc.com/), mugikorretarako Wikiloc aplikazioan (iOS/Android), eta Apple Watch-erako aplikazioan. Edonoiz eta edonon erabiltzeko moduan, hortaz.

Dagoeneko 65.000 erabiltzaile ditu Wikiloc-ek, eta Euskal Herriko 625.000 ibilbide eta 375.000 argazki daude partekatuta, edozein erabiltzaileren esku.



Gorritxu autoak
Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU 943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com

optika
Gauez ukipen lenteekin lo egin eta egunez ikusi
Gehiago jakin nahi baduzu, etorri eta galdetu
ALAZNE OPTIKA
Jose Mª Altzibar etorbidea 1
Tel. 943 60 31 54 · alazne.optika@gmail.com

GATZA eta PIPERRA

Herriko hitzak eta esamoldeak asmatu edota bilatu beharko dira atal honetan. *Bai txo! euskara elkartia*k orain dela urte batzuk herriko hitzak eta esamoldeak jaso, mantendu, eta berreskuratzeko edota zabaltzeko helburuarekin egindako **Gatza eta Piperra** lehiaketan jasotako hitzak dira hemen agertuko direnak.

GURUTZEGRAMA

1. Amarauna.

2. Zomorroa.

3. Maiñelek indar haundiko haize-kolpeari edo bat-bateko haize gogorrari ematen dioten izena.

4. Isilik geratu gabe, aurre egin zion, ... egin zion.



LETRA-ZOPA

1. ....., zenbat diru ete daka horrek!
(Batek daki, auskalo).

2. Begiak erdi itxita. Begi .....

3. Kaka egiten harrapatu zeuen.

4. Atuna marmitxakua egitxeko zatitxu. .....

A	R	R	I	S	K	U	R	A
E	X	K	A	M	T	A	A	A
I	I	A	O	A	Z	A	T	U
N	O	B	R	A	T	Z	A	N
K	R	A	N	A	X	S	T	B
X	R	T	I	S	N	L	O	E
U	A	Z	I	T	E	O	T	L
A	K	Z	A	E	K	R	U	F
N	E	Z	E	R	B	I	K	L

soluzioak:

GURUTZEGRAMA: 1. Marmaetxia 2. Mamorrua 3. Txaranbela 4. Petx **LETRA-ZOPA**: 1. Arriskura 2. Xiorrak 3. Obratzen 4. Tatua

16. ABENDUROCK: KULTURAREN LEIHOETATIK

"Ez dira betiko garai onenak…" zioen euskal kantagintzako abesti ezagun batek. Ez da atzo goizeko abestia, baina hala ere, egun bizi dugun egoera bete-betean adierazten du.

Ez dira une goxoak merkatari eta ostalarientzat (batez ere, Mutriku bezalako herri batean), eta are gutxiago, kulturari lotuta lan egiten duten musikari profesional eta soinu-teknikarientzat. Haiek ere bizi beharra dute eta askok familia mantendu behar dute. Bada soinu teknikaririk soinu-ekipo berria erosi, eta etxekoak mantentzeko, guztia saldu eta enpresa itxi behar izan duena ere. Bestalde, zer izango zen etxealdi garaia gure kulturarik gabe? (Hor hausnarketarako bidea).

MRK-ko kideok hasiera-hasieratik oso argi dugu aurtengo Abendurock egitea ez dela lan makala izango, eta edozein unetan dena bertan behera utzi beharra izatea ere gerta daitekeela (hori bai, bertan behera uztea baino, atzeratzea izango da egingo genukeena). Hala ere, momentuz aurrera egitea erabaki dugu eta unean uneko erabakiak hartzea. Ez gara gu izango kulturari ateak itxiko dizkiona, ez horixe! Ate guztiak ixtean, beti geratzen dela leihoren bat irekita esaten du esamolde batek. Guk horri helduko diogu. Musikari eta soinu-teknikariak hasieratik egoeraren jakitun dira. Hortaz, guk momentuz, aurrera!

Urteroko ekimen hau egoerara egokitu behar izan dugu; eta beraz, abendu osoan astebururo egiten genuena, aurten abenduaren 17tik 20ra izango da, Gaztetxean eta Merkatu plazan (kon-tzertuei dagokienez behintzat). Abenduaren 13an izango da lehen hitzordua, Zabielen (Zine Forumekin elkarlanean); El drogas Barricada taldeko kideari buruzko dokumentalarekin ekingo diogu 16. edizioari, eta ikus-entzule kopuru mugak direla eta, 13ko arratsaldean 17:00etan eta 19:00etan egongo da dokumentala ikusgai. Bestalde, MRK gaba ezin izango dugu egin. Atsekabez hartutako erabakia da, baina aurten zentzuzkoena horixe da.

Segurtasun neurri guztiak zorrotz zaindu eta ahalik eta profesionalen jokatzea da gure asmoa. Hori dela eta, emanaldietarako sarrerak (pertsonako bi gehienez) aurretiaz hartu beharko dira sare bidez adieraziko dugun lekuetan. Aurten, emanaldiak ez dira doan izango; hau da, 3-5 euro inguru balioko dute eta jasotakoa kultura bultzatzeko erabiliko dugu. Ordutegiak moldatu beharra izanez gero, ordea, sare sozialen bidez jakinaraziko dugu.

Bukatzeko, hemen dituzue kartela, eta talde edota emanaldien informazioa; halere, ezin gara agurtu udalari eskerrak eman gabe, babestu eta laguntza eskaintzeko prest agertu baita hasieratik. Une zailotan bizirik eustea hain garrantzitsua den gure kulturari bultzada emanez, abuztuan "Bada posible" antolatu izana ere txalotzekoa da.

EL DROGAS DOKUMENTALA
Enrique Villarreal, "El drogas", Barricada rock taldeko abeslari, baxu jotzaile eta liderraren irudiaren dimentsio guztiak aztertzen dituen dokumental biografikoa.

AMORANTE (Iban Urizar)
Musika munduan urteetako ibilbidea duen musikari elgoibartarra aurten plazaratutako lan berria aurkeztera dator. Folk musika ezberdinen uztarketa egiten du, koplak, flamenkoa eta Afrikako musikak nahastuta. Gitarra, harmoniuma, ukelelea, zintzarria eta tronpetarekin esperimentatzen du.

DEÑE
16 urteko neska gazte azpeitiarra, gitarra lagun, bere ahots ederrarekin igoko zaigu oholtzara. Musikari hasiberriei lekua egiteko asmoz, Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxeak Egin leku deialdia aurkeztu zuen uztailaren lehenean. Deñe da irabazleetako bat.

ŔO
azkoitiko eta azpeitiko musikariz osatutako post-rock estiloko talde instrumentala. 2019an Kutxa Kultur Musika programan bertako talde aukeratu zuten urtebetez. 54. Heineken Jazzaldia, Donostia Festibala eta Atlantikaldia festibaletan parte hartu zuen. 2020 hasieran Arnau Padillaren "Umbral" filmearen soinu banda konposatu eta zuzenean jo zuten Sara Zozaya musikari eta konpositorearekin. Benetan merezi duen taldea. Udaberrian argitaratutako disko berria aurkeztera datoz gainera.

BELATZ
Gernikako rock taldea. Lehengo eta oraingo rocka uztartzen dituen talde honek 2018an Banden Lehia lehiaketa irabazi zuen, eta 2019an kaleratutako lana aurkeztera datoz.

RAITX
Koban taldearekin ibilbidea amaitutzat eman ondoren, Rakel Arenaza donostiarrak bere bakarkako proiektua aurkeztu digu. Une oso pertsonaletan sortutako poesiak musikatu eta kanta intimistak konposatu ditu, letrak eta ahotsak protagonista bihurtuta. Udaberrian argitaratu zuen bere lehen lana plataforma digitaletan.

ORBEL
Baionatik datorren laukotea. Post-rock estiloa jorratzen du, bi gitarra, baxu, teklatu eta ahotsez. Pasarte ilun edota sakonez osatutako musika honek, eta batez ere Kamille abeslariaren ahots liluragarriak, une edota atmosfera berezia sortuko dute merkatu plazan abenduko igande arratsalde ilunean. Kontzertuan sartu eta barne bidaia berezi bat egiteko aukera.


MRKren ESKUTIK
XVI.
ABENDUROCK
EL DROGASen dokumentala ABENDUAK 13 • ZABIELEN
AMORANTE ABENDUAK 17 • 19:30 • GAZTETXIAN
DEÑE ABENDUAK 18 • 20:00 • GAZTETXIAN
RO + BELATZ ABENDUAK 19 • 20:00 • MERKATU PLAZAN
RAITX + ORBEL ABENDUAK 20 • 18:00 • MERKATU PLAZAN
MU
TRI
KU
2020
MUTRIKUKO UDALA
MRK
Gaztetxea
BADOK
HITZA
musika
Begipuntuan

ZORIONAGURRAK ZORIONA

LUKEN
Zorionak!
4 urte handi!!!
Matxe-matxe beti!!
aitatxo&amatxo

KOLDO
Paljon onnea!!
Zorionak! Muxu asko
Mutrikutik Finlandia-
ra! Lukenen partez!

MIREIA eta NOA
Zorionak gure poxpolin txikixai.
Azaroak 2an 2 urte! Pilo bat matxo zuentzat
aitxitxa Jose Miguelek eta amona Fatimak



KALAPUTXI
19 urte zerbait badira eta Zorionak bidean izan zareten guztioi!
Kalaputxi honaino ailegatu bada, zuei esker ere ailegatu da eta.

AURO
Zorionak gure lagunari!
Jarraitu zaren bezalakoa
izaten. Muxu asko zuretzat!

ZORIONTZEKO

kalaputxi2001@gmail.com ## whatsapp 635748393

ANSORREGI
oinetakoak
erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

Argazki Zaharrak

San Miguel ikastetxeko taldea, 1953 urtean
Sor Natividad, Sor Hermelinda, Sor Celestina, Sor Felisa;
Aurora Manterola, Maria Karmen Larrañaga, Maria Kruz Uranga, Maria Luisa Agirregomezkorta, Kontxita Uranga, Enkarnita Goenaga, Jesus Mari Egurbide (Trentxiki), Maria Kruz Barrenetxea (Sanjuantxiki), Manolita Alberdi, Genma Egaña, Maria Loli Urreisti, Maria Jose Andonegi, Nerea Egurbide (Trentxiki), Itziar Bazterretxea (Txino), Maria Mila Ulazia.

Argazki zaharrak? >> kalaputxi2001@gmail.com >> wathsapp: 635748393 >> Ansorregi zapata denda

Arantzazun, 1964ko irailaren 20an, ibilaldi neurtuan edo "marcha reguladan"
Begoña Martija, Tere Maneiro, Begoña Lezertua, Mila Arizmendi, Clarita Lezertua, Tere Garnacho eta Mari Luz Gambra

ZAINTZAKO BOTIKAK

(gaueko 10ak arte)

AZAROA		ABENDUA	
20tik 22ra	Hiart Burgoa	1etik 3ra	Hiart Burgoa
23tik 26ra	Lasuen Elezgarai	4tik 6ra	Amaia Zalduegi
27tik 29ra	Lon Apraiz	7tik 10era	Lon Apraiz
30ean	Hiart Burgoa	11tik 13ra	Lasuen Elezgarai
		9tik 12ra	Lon Apraiz
Gauetan, egunero (22:00-00:00):		13tik 17ra	Amaia Zalduegi
Elgoibar		18tik 20ra	Hiart Burgoa
Gauetan, egunero (22:00-09:00):		Zapatu (19) goizean, Lon Apraiz	
Celia Barandela 943 20 69 84		21etik 24ra	Lasuen Elezgarai
Ziriako Agirre kalea 4, Eibar		25tik 27ra	Lon Apraiz

MENDI IRTEERAK

COVID19 dela eta, mendi-irteera guztiak bertan behera utzita

Burumendi Mendi Elkartea

ODOLA EMATEA

abenduak 11, 18:00etan

zabiel kultur etxean

Gipuzkoako Odol Emaileak

kalaputxi2001@gmail.com

whatsappa 635748393

abenduko aldizkarian argitaratzeko **abenduaren11rako** bidali zuen mezuak

Igualatorioarekin eta
Osakidetzarekin
lan egiten dugu

Audioprotesista
egunero zentroan
Audiometriak doan

OPTIKA VITORIA

OPTIKA • AUDIFONOAK

ERRBERA 16 • 48700 ONDARROA • 946134138 • mvitoria@cnoo.es

Samiela

0-12 urte bitarteko hezkuntza eskaintza

www.samiela.eus

T.943 60 31 95 samiela@samiela.eus

DOAKO HEZKUNTZA

EUSKARA ARDATZ

HIRU HIZKUNTZAK BERMATUTA

IKT-ak EGUNEROKOTASUNEAN

METODOLOGIA BERRITZAILEAK

PROIEKTUAK

ZERBITZUAK: Zaintza, jantokia...

*Covid-19 SEGURTASUN NEURRI

GUZTIAK MARTXAN

INOIZ BAINO GEHIAGO,

DENOK ELKARREKIN!